


Koloratzatzeo

Liburua

gure herriko

historia

ezagutz



ERMUA



Korrikalaria kotxearen kontra



Demaseko ikusmira zegoen Ermuan 1911ko egun euritsu hartan. Desafio gogorra iragarritakoa: korrikalaria automobilaren kontra. Jokoan Areitioko gaina nork ala nork lehenago hartu. Bere abarketa zuritxoekin, lasterketa guztian antxitxiketalaria aurretik joan bazen ere, Areitio gaineko lautadan abiadura hartu eta lau erroberadunak irabazi zuen norgehiagokaa.




Pilotariak



Ehundik gorako pilotariren sorleku izan da Ermua, beraietatik asko profesional mailan bizimodua ateratzen munduko bazterretan ibilitakoak. Palaz, eskuz, zestaz zein raketaz jokatu duten entzute handiko gizon eta andrazko ugari eman ditu gure herriak, guztiak ere ume-umetan hasitakoak, etxean artilez egindako pilota eskuan, eta liso zegoen edozein hormatan saiatuz.

Harrijasotzaileak

Herri-kirolen multzoak modalitate mordoak ditu: soka-tira, harri-jasotzea, txinga-eramatea, idi-probak, zaldi-mando probak, asto-probak, aizkolaritza, kaskarabatzea, gizon-probak, palanka-jaurtiketa, bola-jaurtiketa, segalaritza, ahari-topeka, oilar-borroka, pilota, arrauna... Gure herrian Ignacio Narbaiza, Felix Ugalde, José Mari Pato aita-semeak eta Javier Valenciano harrijasotzaileak proba eta apustu ugaritan ikusi ditugu, eta Ziriako Ortiz de Zarate esatari lanetan.






Bizkaiko probalekurik zaharrena zen Ermukoa. Gipuzkoan sasoi baten debekatuta zeuden joko eta apustuak, horregatik Bizkaiko mugako lehen herri honetara jotzen zuten apustulari, probalari, idien jabe eta adin guztietako ikusleek. Gainera, gure herriko baserrietako idiak goi-mailako probetan ibilitakoak dira ere. Ermuko Probaleku plazan dagoen harria enkantxoan proba gunean erabilitako bietatik zaharrena da: harri zakarra da, aurre arin eta atze astunekoa, eta proba gaitzetarako erabiltzen zen.

Probalekua




Xabalina jaurtitzailerak



Hainbat xabalina-jaurtitzailerak izan dituzte herriak. Atletismoaren modalitatea den kirol honetan, Ermuan bizi eta lan egindako Felix Erauskin zeanuriztarrak, 19 aldiz izan zen Espainiako txapelduna. XXI. mendean honetan ermuarrek bere ekarpena egin diote ere kirol honi eta goi mailan aritu izan dira, besteak beste, Arantza Moreno eta Leire Gorritxategi, Estatu eta nazioarteko hainbat txapelketetan gailendutako emakume atletak.


Munduko txapelduna



Igor Astarloa munduko txapeldun zela esnatu ziren herritarrak 2003ko urriaren 13an. Mutikotan ziklokrosean aritutako Santa Anako auzokideak profesional mailara egin zuen salto, eta galanta gainera: 27 urterekin Munduko Txirrindularitzaren txapela jantzi zuen Canadako Hamilton hirian jokaturako lehia.

Eskubaloia

Eskubaloiak zaletasun handia du gure herrian, nesken artean bereziki. Ehunka dira kirol hori aukeratu dutenak eta gaur egun eskubaloi eskola bikaina dugu, Errotabarri Eskubaloi elkartearen kudeaketari esker. Azken urteotan punta-puntako jokalarik eta entrenatzaileak txalotzeko aukera izan dugu: besteak beste, Matxalen Ziarsolo, Esther Larreategi, Ixone Minguez, Mirene Moreno, Anne Erauskin, Maialen Agirregomezkorta, Imanol Alvarez...





Santa Ageda - Etxegiña




*Zorion etxe hontako denoi
oles egitera gatoz.
Aterik ate ohitura zarrak
aurten berrizteko asmoz.*

*Ez gaude oso aberats diruz,
ezta ere oñetakoz.
Baiña eztarriz sano gabilta
ta kanta nahi degu gogoz.*


*Santa Ageda bezpera degu
Euskal Herriko eguna.
Etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna.*



Aititagandik zetorkion
Etxegiña gaitzizena German
Urigueni, 1898an jaiotako
bertsolari ermuarrari.
Elgoibarrera bizitzera joan
aurretik, zortzi ahapaldiko
“Salbea” sortu zuen 1915ean,
Santa Ageda egun bezperako
kantu-jiran, urte horretan hildako
pertsonek pegora parean
etxekoei elkartasuna erakuste
asmoz propio abesteko idatzi
zuen. Oraindik ere abesten da
egun horretako iluntzeko
santa-eskeko kalejiran.




San Blas



Irina, gurina, arrautzak, azukrea, limoi-ura eta anisa nahastu, zapaldu, opil-forma eman, labean sartu eta kito! Gure amamak dio ez dela hain erraza San Blasari eskua hartzea, bere zertxoa duela: bateko gaineko zuria ez dela behar den bezala gogortzen, besteko masa larregi gogortu dela eta ez dela grausk! apurtzen... Horrela ere, gozoa baino gozoago ateratzen zaio! Guri gainean txokolate likidoarekin "San Blas" idaztea gustatzen zait ezer baino gehiago. Eta jatea, noski!Uhm!

Eguen Zuri



“Ezkerra”, “eskuma”, “zuzen”, “zuzen”... uf, hau nahastea!
Begiak zapi ilunez estalita, makila bat eskuan, plazako mutur
batetik bestera artekoa egin behar, lagunok! Plazako
burrundadaren gainetik, alboko txistu eta danborilaren soinua.
“Zuzen”, “zuzen”... tak! Ukitu dut, oilarraren kutxa ukitu dut!
Lagunek “Zorionak!” esaten didatela amestu dut. Ene, orduan
ametsa izan da! Hurrengo urtean bai, hurrengoan izena
emango dut! “Zuzen”, “zuzen”...

Aratusteak



Inauteri, aratuste edo karnabal, mozorrotu, disfrazatu edo koko jantzi. Zenbat izen ugari gauza bakarrarentzat!
Eguen Zuri arratsaldean hasi eta martitzen gauera arte izen haina aukera ditugu ez garenaren lekuan jartzeko edo behintzat haren itxurarekin janzteko.




Hartza Eguna



*Patxi Urkoko etorri jakun
lehengo egunian esaten
animali bat han ebilela
bazter guztiak apurtutzen
eskopetekin hara joateko
pizti hori harrapatzen
inguru hartako baserritarrak
ez ebela lorik egiten.
Hara joan ginen aldra ederra
zer ote zan hori ikusten.*

*Basobaltz eta Urko erreka
sastrak genduzan joratu
baiña guk ezin izan genduan
animalirik bilatu
soñeko arropak apurtu arte
aurrera genduan jarraitu.
Non uste dozu adiskidia
egin genduala aurkitu?
Mañako lezan sartuta euan
hantxe egin genduan hartu.*

Hartza Eguneko koplak 1934ko inauterietan abestu ziren lehen aldiz. Gillermo Bengoetxea Txindurri legez ezaguna zen idazle eta bertsolariak sortutako bertso sorta zen. Tuberkulosiarekin gaixotutako mutil gazte batentzako diru eskatuaz kalez kale abesteko koplak dira. 1989 urtean berreskuratu ziren eta kantu-jira egiten jarraitzen da.




Dantzariak



Dantza eta musika beti egon dira gure herriari lotuta. Ermuan hiru dantza talde izan dira: Arkaitz, Gure Ametsa eta Txindurri. Dantzari ona izateko bizitasuna behar da, bai, baina garrantzitsuagoa da belarri ona edukitzea. Urte osoan gogor prestatu behar jakineko dantza emanaldiei aurre egiteko: sasoi baten Mallabiko eta Ermuko ermitetako erromerietan edota herriko jaietan; oraintsuago Euskal Jaian, *Santa Zezilia* jaialdietan...



Santixauak



Carmanyk Santixauetan, goitik eta behera zuriz jantzita, zapi gorria saman eta lastozko kapela buruan, bolanderak jaurtitzen zituen. Fiiiii! Pum! Santixau bezpera baten, txapliguetako batek okerreko bidea hartu eta bera jo zuen. Jausi zen lekuan, Valdespina Jauregi ondoan, loratxoak daude sarritan eta Santixauetan zapi gorri bat lotzen da bere omenez bertan.

Zezen Eguna - Paellak

Zezenak dira.

Baltz-baltzak dira.

Harrapatzen bazaitut, harrapatzen bazaitut.

Bertan-bertan hilko zaitut.

Bertan bertan hilko zaitut.

Zezenak datoz

arkupeatatik.

Sua dariola

adarretatik.


Kea, kea...

Santa Ana kaletik.


Zezen Egunean paella egiten. Akorduan daukat nola ibili ginen haizetik babesteko leku baten bila. Herriko bazter guztiak jendez beteta, itzela zen giroa eta halako sardina usainik, ezta portuan ere! Arroza gozoa; gosea guk... akabera bakoa!



San Martin Azoka



1989 urtean ospatu zen lehen aldiz San Martin Azoka eta bere bereak egin ditu hainbat gauza: txerriaren errifak, taloa, baserritarrak, ortuariak, abereak, lagunartea, babajana, egun horretan Ermuratzea... Herriak sortu eta suspertutako jaia izatean, jendetsua eta partaidetza handiko eguna bilakatu da.



Ezekiel Etxebarria



Ezekiel Etxebarria Irustak eibartarra jaiotzez, 56 urte eman zituen Ermuan abade modura eta 1925ean hil zen. XX. mende amaieran, abade-etxeko liburuen artean berak asmatutako bertso ugari agertu ziren. Gehienak eliza, doktrina eta ebanjelioaren gaineko bertsoak dira. Baina badira pertsonaia zein herritar xumeak ardatz hartuta idatzi zituen beste hainbat ere

*Aginaldo, aginaldo,
Bizkaixa ta Durango,
zazpi kastaña,
zortzi intxor.
Aingeruak gera,
zerutik gatoz.
Poltsia baukau baiña,
eskian gatoz.*

*Si si si
No no no
Poltsa bete solomo
Aqui estamos cuatro,
cinco compañia,
sei letania,
ocho odolostia,
por la Virgen de Maria!*


Lobianoko Ysabel

Ysabel Lobiano Ybaseta, 1583an jaiotako neskatua, leinu aberats eta boteretsu bateko ondare guztien jabe izatera zegoen deitua, eta senargaia ere izendatua zuen. Baina 13 urte besterik ez zituela, Pedro Ydiaquez gaztearekin maitemindu eta ihes egin zuen ikasten zegoen Mutrikuko kobentutik, bere maitetxoarekin egun berean ezkonduz. Bahitzea eta bere gogoz kontra ezkondu araztea leporatu zion familia batek besteari, urteetarako auzietan korapilatuz; tira-birei amaiera emateko Espainiako Maria Enperatrizak esku hartu behar izan zuen. Denbora gutxirako izango ziren senar-emazte: Pedro zazpi urtera hil zen, hiru seme-alaba txiki umezurtz lagata. Gazterik alargunduta, Ysabel ez zen berriro ezkondu: Pedroren andrea izan zen betirako.



Valdespina markesa

IV. Valdespina markesa da bibotedun gizon hau, Bizkaiko Diputazioan diputatu eta korregidore izateaz gain, tropa karlisten buruzagi militarra izandakoa. Bere izena daramate udaletxea den eraikin ederrak eta haren ondoko kaleak. Felipe V. erregeak Orbe kardinala izandako bere arbasoari markes titulua eman zion; honek "Val de espina" izena aukeratu zuen bere jaioterria izandako Ermuaren oroigarritzat, *espino albar* edo elorri zuri ugari ernetzen zen ibar baten zegoelako.



Francisco Izagirre


Herriko maisuaren semea zen *Patxiko*. Lanbidez trenbideko zerbitzu elektrikoen zuzendari eta Bizkaiko Diputazioko erlojeru ofiziala izan zen, eta Ermuko alkate ere. Kuriositate eta kultura handiko gizon ilustratua, etxeko liburutegia hizkuntza desberdinetan idatzitako astronomia, elektronika, fisika, mekanika, topografia, geografia, musika, filosofia, telegrafia eta aritmetikako liburu eta tratatu kontaezinez hornituta zuen. Berak egindako irratitari esker, Ermuan entzun zen inon baino arinago "Radio Paris". Bere etxe gainean, Erdiko Kaleko *Eskolaneko* teilatuan, plazatik ikusi daiteken txosnatxo karratu bat ere egin zuen, teleskopio bat jarri eta gauetan izarrei begiratu ahal izateko.



Alejandro Aranburu Droget

Alejandro Aranburu 1885ean jaio zen. *Droget* bezala izan zen ezagutua, beti “drógetan”, brometan ibiltzen zen drogo eta saltsero hutsa zelako. Mexiko aldera joan eta Pancho Villaren ondoan hango iraultzan hartu zuen parte; bertako historia liburuetan “*El vasquito*” bezala agertzen da.

Pilotari eta enpresa-buru errepublikazale hau, 1931n Eibarren Errepublika aldarrikatu zen apirileko goiz entzutetsu haren bezperan, Ermutik bandera eta klarinete soinuekin antolatutako kalejiraren buru izan zen. *Drogetenitturri* herri aldizkariak berak atondutako Errekalde bideko iturriaren leku-izena darama, ermuarren atsedean eta bainu-leku



Santa Zezilia banda



1914. urtean sortu zen Santa Zezilia banda eta haren izena izan zuen sasoi baten Goienkale kaleak. Tronboia, klarinetea, txapak, bonboa, bonbardinoa, danborra, tronpeta... han ez zen ezer falta Ermuko kaleak alaitzeko. Jai usaina egonez gero, han izango ziren bandakoak. Jaiegun handietako menu musikala gero: goizean zehar kalez kaleko biribilketa, meza ostean kontzertua eta gauean dantzak plazan, *bailabliak*.





Testuak: *Éstibalitz González Solozabal*
Marrazkiak: *Marta Teran Sainz (San Martingo txerria: Markos Gimeno Vesga)*
Ermuko Udala - Euskara Saila
2019ko abenduaren 15a, Ermua

Esku artean gure Historiako zati bat duzu. Margotuz eta disfrutatuz gure herrian izandako hainbat pasadizo ezagutuko dizu. Denak benetakoak, liburuetan agertu direnak eta gure nagusiek kontatutakoak: Kirol eta jai girokoak, amodiozkoak, historiakoak... denetarik topatuko duzu!